

Bidebieta

Jon Karlan ibiltzeko
abentura

IRUTXULO

Jon Karla kaleko espaloian ibiltzea ez da oso samurra. Izan ere, kotxe asko espaloian bertan aparkatuta egon ohi da. Gazte Txokoko lagunek arazoa konpondu nahi dute.



Jon Karla kalean kotxeak oztopo izaten dira oinezkoentzat.

auzotarrek arazo franko dute Jon Karla kaleko espaloian ibiltzeko, kotxeak maiz espaloian bertan aparkatuta topatzen dituzte eta. Javi Jimenezek, kale horretan dagoen Gazte Txokoko arduradunak adierazi digunez, "umeez eta gurasoek egunero

sekulako komeriak izaten dituzte Haur Txokora sartzeko, kotxeek sarrera oztopatzen baitiote". Hori gutxi balitz,

kotxeek, ezker eta eskuin aparkatuta, errepidea ere ixten dute ia-ia: errepideak bi

norabide ditu eta errepide bazterrak hartuta badaude, ezinezkoa da bi norabideetatik datozen bi kotxe batera pasatzea. Horrez gain, bihurgune horretan hainbat motorzaleek istripu larri samarrak izan ditu.

Lorategia galtzeko
arriskua

Bestalde, Bidebietako Eskola Publikoaren atzealdeko berdegunean ere kotxeak aparkatzen dituzte. Javi Jimenezek dioskunez, "Gazte Txokoa sortu genuenean, duela zazpi bat urte, kanpoaldea txukuntzen saiatu ginen, baita lortu ere, baina azken boladan kotxe batzuek ez dute berdegunea errespetatzen". Gazte Txokokoek urte osoa daramate kontu honekin gora eta behera. Donostiako udal lorategien arduradunekin eta Udaltzaingorekin harremanetan daude, baina oraindik ere ez dute erantzunik jaso.

Ikastaroak Kontadorezen

Kontadores Gaztegunek ikastaroak antolatu ditu datozen hilabeteetarako, antzerkia, argazkilaritza, dantza edota zinema, besteak beste. Ikastarook urriaren amaieran hasiko dira. Izena emateko Kontadores Gaztegunera jo (Pasai San Pedro Etorbidea, 13) edo 943390122 telefonora deitu.

Javi Jimenez:
«Umeez sekulako komeriak dituzte Haur Txokora sartzeko»




**OKINDEGIA
ETA
ETXEKO
GOZOAK**

Ubarburu P., 4-5 pabiloiak • 27 Industrialdea
- Tel.: (943) 45 09 66 • ASTIGARRAGA



2000/2001 ikasturtea
SERLANG

Hizkuntzen kabia



MATRIKULA ZABALIK

Easo kalea 13 • Tel.: (943) 431657 • Faxa: (943) 431658
e.mail: serlang @ infonegocio.com